

## KONTROL MOZIOA

### Larratxoko oinezkoen kalea ibilgailuei ireki izana dela eta

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk eta Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui mozio hau aurkezten dute Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2022ko martxoaren 14an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioetan dago.

### JUSTIFIKAZIOA

Larratxoko Osteguna auzo elkarteak eta hainbat bizilagunek salatu dutenez, bada urtebete kendu zituztela, Larratxoko losu Artetxe plazako oinezkoen kalean, ibilgailuen joan-etorriak oztopatzeko jarrita zeuden piboteak.

Bizilagunek adierazi dutenez, tarte horretan, ibilgailuak igaro egin dira, sarritan abiada handian, oinezkoak dabilzan gunean. Kezka adierazi dute arrisku egoerak sortu izan direlako, bereziki, haurrak jolasean izaten direlako bertan. Inork ez daki Udalak zergatik kendu dituen pibote horiek (udaltzain batzuek egin omen zuten), ezta zergatik ez zituen berriz jarri ere, auzotarrek eskatu arren.

Urtebete kenduta izan ondoren, jarri egin dituzte pibote batzuk batzordean agertu baino lehentxeago. Edonola, kalearen alde batean besterik ez dituzte jarri; gainera, finakoak dira, eta anbulantziak ez bezala autoak bai igaro daitezke; goiko aldetik ere, ibilgailuak igarotzen ari dira atzeraka eginez.

Batzordean, Mugikortasuneko zinegotziak erantzun zuen segurtasun arrazoiak medio kendu zituztela piboteak, eta ohikoa dela hiriko beste oinezkoentzako kaleetan ere piboterik ez izatea. Gainera, bertatik igaro izan diren ibilgailuetako erabiltzaileen bizkar utzi zuen Udal Gobernuak berak, piboteak kenduta, eragin dituen arrisku egoeren ardura.

Piboterik jarri ezean, oinezkoen segurtasuna bermatuko duen beste alternatibaren bat emateko eskatu genion arren, ez zuen deus erantzun. Adierazi genion ere hain jendetsua den eremuan Artetxe plaza dela Larratxok duen gune lau bakarra, eta hori kontuan izan behar zuela Udal Gobernuak oinezkoen zatia eraldatzekotan, baina horri ere ez zion erantzun.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duten zinegotziek honako KONTROL MOZIO hau egiten dute:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari itzul dezala Larratxoko plazako oinezkoen eremua duela urtebeteko egoerara, kendu eta jarri zitezkeen piboteak kalearen bi aldeetan jarrita.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala auzo



elkarrekin eta bizilagunekin Larratxoko plazako oinezkoen eremua eraldatzeko edozein neurri, erabakia hartu baino lehen.

Donostian, 2022ko martxoaren 17an

Zigor Etxeburua Urbizu  
*EH Bildu udal taldeko zinegotzia*

Haizea Garay Gallastegui  
*Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia*